

ODOLA ANALIZATZEKO TRESNA BAT, ODOLA ATERA GABE

DESKRIBAPEN OROKORRA

Eskumuturrean jartzen den gailu berritzailea da, odolaren osagaiak analizatzeko odola ateratzeko beharrik gabe. Teknologia aurreratua erabiltzen du (presio-sentsoreak), odolaren egoera azkar eta eroso aztertzeke. Gailuak 10-15 minutuko analisia egiten du, eta amaieran odolaren osasun-egoera eta osagaien balioak erakusten ditu ehunekoetan (hemoglobina, plaketak, burdina, oxigenoa, etab.).

Gailu hauek Osakidetzan erregistratuta egongo dira eroste diren momentutik, eta hauek erabili eta gero odolaren egoera larria bada Osakidetzari abisua helduko zaie eta automatikoki medikuarekin hitzordua izateko aukera izango duzu telefonoz edo presentzialaz.

Pertsona bakoitza bere makina izan behar du ezin da makina bat erabili pertsona bat baino gehiagorentzat, izan ere, makina zure datuekin lotuta dago.

EZAUGARRI NAGUSIAK

1. Ez-ateratzea:

- Azalaren bidez datuak jasotzen ditu sentsore optikoen eta adimen artifizialeko algoritmoen bitartez.
- Infragorriak erabiltzen dira odolaren osagaiak neurtzeko (adibidez, hemoglobina edo plaketen maila).

2. Denbora Errealeko Jarraipena:

- Gailuak datuak jasotzen ditu 15 minututan, presioa automatikoki doitu zehaztasun handiena lortzeko.

3. Osasun-Adierazlea (%):

- Odolaren osasun orokorra ehunekoetan kalkulatzeko du eta banan-banan osagaien balioak eskaintzen ditu.

4. Eramangarritasuna:

- Arina, funtzionala, txikia eta erabiltzeko erraza.

5. Digitalizazioa:

- Emaizak makinak duen pantaila txiki batera bidaltzen dira, non xehetasunak, joerak erakusten diren.
- Mugikor aplikazio bat instalatzeko aukera izango du makinarekin konektatzeko eta han gomendio pertsonalizatuak erakusten ditu.

NEURTZEN DITUEN PARAMETROAK

1. Globulu Gorriak:

- Oxigenoaren garraio-ahalmena aztertzen du.

2. Burdinaren Kontzentrazioa:

- Anemia edo burdina gehiegizko kasuak detektatzen ditu.

3. Oxigeno Maila:

- Odolaren oxigenazio-egoera neurtzen du.

4. Glukosa eta Lipidoak:

- Gaixotasun metabolikoen (diabetes, adibidez) kontrolerako parametroak.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

1. Gailuaren prestakuntza:

- Makina erregistratu egin behar duzu Osakidetzan eta zure datuekin lotu.

2. Hasiera:

- Gailua eskumuturrean jartzen da, erraz ixten den belkro batekin. (tamainak egongo dira, jendea eskumuturreko neurri ezberdinak dituztelako)

3. Analisi Prozesua:

- Sentsoreek infragorria eta bestelako argiak erabiltzen dituzte odolaren osagaiak neurtzeko.
- Presioa automatikoki erregulatzen da emaitzen zehaztasuna hobetzeko.

4. Emaitzak:

- 15 minuturen ostean, gailuak ehunekoetan erakusten du odolaren osasun maila, baita xehetasun gehiago ere aplikazioan.

ABANTAILAK

1. Minik Gabe:

- Odola ateratzeari beldurra dioten pertsonentzako aproposa.

2. Alergiarik Gabe:

- Orratzaren materialei alergia duten pertsonentzat aproposa.

3. Emaitza Azkarrak:

- Informazioa berehala eskuratzeko aukera.

4. Erabilerraza:

- Ez da mediku ezagutzarik behar.

5. Prebentziorako Lagungarria:

- Arazoak garaiz antzemateko aukera.

6. Kontrolak:

- Osakidetza kontrolatuko ditu makina hauek, eta abisuak emango dizkie medikuei.

APLIKAZIOAK

1. Norberaren Erabilera:

- Osasuna etengabe kontrolatu nahi dutenentzat.

2. Kirolak eta Ongizatea:

- Egoera fisikoa aztertzeko eta errendimendua optimizatzeko.

3. Gaixotasun Kronikoak:

- Anemia, diabetesa edo bihotz-gaixotasunak dituztenentzako kontrol jarraitua.

PREZIOA

Prezioa aldakorra da, medikuak gomendatuz gero (Anemia, diabetesa edo bihotz-gaixotasunak dituztenak batez ere) prezioa jeitsi egingo da. Eta prezioa ez da aldatuko tamainaren arabera, denak prezio berdina izango dute.

ARGAZKIA

Hona hemen makinaren bozeto bat:

